

# Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 7a

642. zenbakia

**SANEAMENDU SAREA/** Deba ibaiko uren garbiketa lortzeko araztegia jartzeaz gain, Mekolalde Dorrea berri egingo dute

## Deba ibaiko saneamendu sarearen barruan, araztegia egiten hasi dira Mekolalden

EDU MENDIBIL

Hasi dira Mekolalden araztegia egiteko lanak. Amenabar eraikuntza enpresak dihardu lanean joan den astea ezker, eta lanek bi urte iraungo dute. Mekolaldeko araztegiak Bergara, Antzuola eta Elgetako sareko urak jasoko ditu etorkizunean.

Deba ibaiko saneamendu sarearen barruan berebiziko garrantzia izango du Mekolaldeko araztegiak. Hain zuzen ere, Deba ibaian lau araztegi jarriko dituzte: Arrasaten (Epele), Bergaran, Elgoibarren eta Mutrikun. Eta horiei gehitu behar zaie Deban martxan dagoena.

Esan bezala, Mekolaldeko araztegiak Elgeta, Antzuola eta Bergara aldeko ur zikinak jasoko ditu eta puntako teknologia erabiliko da uren garbiketa lortzeko. Hain zuzen ere, egindako neurketen arabera, kutsadura mailarik altuena dauka gaur egun Arrasate eta Bergara arteko zatiak. Eibarraren bakarrik gertatzen da horren kutsadura indize altua. Araztegiak behar-beharrezkoak dira egoera kezkaigarri horri buelta emateko. Hasi batean, Europak ezarritako epeak betetz, Deba ibaiko saneamendu sarea 2007. urterako gertu egotea da asmoa.

### 12,7 MILIOIKO AURREKONTUA

Jaurlaritzako Ingurumen Sailak egingo ditu Mekolaldeko araztegiako lanak. Joan den astea ezke-



Mekolalde Dorrearen inguruan lanean dira aurreko astea ezker. Deba ibaiko araztegiak bat kokatuko dute hantxe.

ro Construcciones Amenabar SA enpresako langileek dihardute Mekolalde Dorrearen aurreko lursailetan lanean. Hain zuzen ere, depositu biologikoa izango dena kokatu ahal izateko hondeaketa lanak egiten ari dira egunotan. Kamioien eta hondeamakinaren lanek ikusmin handia piztu dute Mekolalde eta Osintxu

*Ingurumen Sailak egingo ditu lanak, 12,7 milioi euro inguruko aurrekontuarekin*

aldera paseatzera joaten diren herritarren artean.

Lanen aurrekontua 12,7 milioi euro inguru da, eta Amenabarrek bi urte dauzka lanok amaitzeko.

### MEKOLALDE DORREA BERRITU

Bestalde, Mekolalde Dorrea berri egingo dute. Mekolalde Dorrea

XV-XVI. mendekoa da, barrokoaren garaian handitu eta berri zutelarik. Etorkizunean araztegi bulegoak jasoko ditu. Berritze sakona egitea beharrezkoa izango da.

Deba ibaiko saneamendu sarearen barruan, aurreko urteotan ur kolektoreko lanak egin dira Bergaran.



Levi's

banatzaile ofiziala Bergaran

Tailak 36tik 54ra

SAN PEDRO 14 • TEL.: 943 76 07 55





ARTXIBOA

Lokalen prezioa tasatua izatea eta Udalak bitartekari lanak egitea espekulazioari aurre egiteko neurriak dira.

**HIRIGINTZA/** Hamar lagun Aranerrekan dagoen lokala eskuratzeko zozketan

## Etxebizitza bihurtzeko lehen baxua zozketatu du Udalak

E.M.

Etxebizitza bihurtzeko lehen etxe behea zozketatzekoan zuten Udalak. Etxe beheak etxebizitza moduan erabili ahal izateko araudia onartu zuenetik, zozketa publikora ateratzen den lehen lokala da. Aranerrekan dago eta hamar lagun aurkeztu ziren zozketara.

Etxe beheak etxebizitza moduan erabili ahal izateko araudia 2004ko ekainean onartu zuen Udaltzatzen. Hain zuzen ere, azken

urteotan etxebizitzaren prezioak izan duen gorakada eta biztanleriak etxebizitza bat eskuratzeko dituen zailtasunak izan ziren araudia onartzeko arrazoiak.

Hala ere, etxebizitza jartzeko egokiak diren lokalen errola osatzea ez da erraza gertatu. Josean Etxeberria hirigintza zinegotziak esandakoaren arabera, "lokal batzuek ez zituzten beharrezko baldintzak betetzen eta beste hainbat kasutan lokalen jabeek atzera egin dute. Momentuz, ez dugu beste lokalik zozketatzeko". Udalak eta

lokala jabeak akordioa lortzen badute, babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa hartuko da erreferentzia gisa prezioa zehazteko orduan.

### LOKALAREN ERABILPEN ALDAKETA

Lokalen jabeek Udalera jo behar dute, lokalaren erabilpen aldaketarako lizentzia eskatzeko. Lokala etxebizitza bat kokatzeko egokia den ala ez baloratu du Udaleko Zerbitzu Teknikoak. Lokalak eskuratzeko interesa duten herritarrekin erregistroa osatzen dabil Udala.

## LABUR

### Jardunek 9-16 urte bitarteko gaztetxoiei zuzendutako aisialdi programa jarri du abian

Jardun elkarteak 9-16 urte bitarteko gaztetxoiei zuzendutako aisialdi programa jarri du abian. Hiru talde egongo dira: alde batetik 9-11 urte bitartekoak zapatu eta domeka arratsaldeetan elkartuko dira Arrizuriagan; eta 12-14 urte bitartekoak eta 14-16 urtekoak zapatu arratsaldeetan. Argibideak Jardunen (943 76 36 61).

### Langileei zuzendutako hobekuntza ikastaroak egongo dira Miguel Altunan, aste barruan

Miguel Altuna institutuak langileei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu. Hain zuzen ere, mekanika, elektrizitatea, administrazioa eta informatikaren gaineko ikastaroak izango dira astelehenera, 18:00etatik 20:30era. %100ean finantzaturako ikastaroak dira. Argibideak 943 76 70 49 telefonoan.

## Martokoko eskola itxita izango da aurtengo ikasturtean

E.M.

Hasi berri den ikasturtean ez dute Martokoko eskola zabaldu. Matrikulazio gutxi izan direla eta, Hezkuntza Sailak ixteko erabakia hartu du. Joan den urtean 2 eta 3 urteko 10 ikaslek jardun zuten Martokon. 2005-2006 ikasturtean Boni Laskuraineko San Martin ikastetxera bideratuko

dituzte Martokon ibilitakoa. Zabalotegin 2-3 urteko 16 ikasle dituzte San Martinek eta Osintzun 6 ikasle ari dira haur hezkuntza egiten.

Itxita dagoen bitartean, hobekuntza lanak egingo dituzte Martoko eskolan. Besteak beste, teulatua konponduko dute. Jaurlaritzak 20.969 euroko dirulaguntza onartu du horretarako.



Urtetan martxan egon ondoren, itxi egin dute aurtengo Martokoko eskola.

## Herran

**ELEKTRIKAKO TRESNAK:** Matxiategi 3 • 943 76 12 22  
**SUKALDEKO ALTZARIAK:** Matxiategi 4 • 943 76 37 53



ELKARRIZKETA

CLEMENTE GARCIA/ ERRETZEARI UZTEKO IKASTAROAK EMATEN DITU

# “Tabakorik gabe plazer txikiekin berdin-berdin gozatu daitekeela erakusten diegu erretzaileei”

EDU MENDIBIL

Ongizateko Prebentzio Zerbitzuak antolatuta, erretzeari lagatzeko ikastaroa egitekoa zen gaur, egubakoitza, kultura etxean. Clemente Gartzia zaragozarrak eman behar zuen. Erretzailea izandakoa da eta berarekin telefonoz izan gara.

**Zertan datza ikastaroa?**

Easyway metodoa azaltzen dugu gure hitzaldietan, Allen Carr-ek *Es fácil dejar de fumar si sabes cómo* liburuan azaltzen duena. Sei orduko saio bat da: lehenbiziko zatian (4 ordukoa) erretzaileek erretzeko dituzten irudimenezko arazoak azterzen ditugu eta gero benetan zergatik erretzen duten azaltzen diegu. Tabakoa droga bat delako erretzen dute, abstinentsia-sindrome hori kentzea beharrezkoa dutelako. Bigarren zatian (2 ordukoa), berriz, sufritu barik erretzeari uzteko klabeak ematen dizkiegu, eta hiru-

garren zatia erlaxatzeko terapia bat egiten dugu 15 bat minututan.

**Zelan gaitzen da tabakoaren premia larria?**

Tabakorik gabe gauzekin goza daitekeela erakusten diegu erretzaileei. Jendeak eguneko momentu konkretu batzuekin lotzen du tabakoa eta beldur dira, uste dutelako tabakorik gabe momentu horiek ez dituztela gozatuko. Baina tabakoa droga bat da, mendekotasun bat. Tabakoaren premia hori erretzen dutelako daukate. Eta uste dute tabakorik gabe ez direla lagunekin afaltzeko gauza izango, ez direla kalean edo lanean

lasai ibiltzeko gauza izango... Dependentsia psikologikoa dago atzetik, eta horretaz jabetu ondoren, eta plazer txikiekin berdin goza dezakegula ikusita, errazago utz daiteke tabakoa.

**Erretzaile ohiak ari zarete horrelako hitzaldiak egiten...**

Bai, baina ez gara erretzaileen kontrakoak bihurtu. Erretzaile eta erretzaile ez diren arteko bizikidetzatza posiblea da. Baina osasun eta diruaz gain, energia kentzen dizu tabakoak. Eskailera batzuk igo ostean edo seme-alabak besoetan hartzean igartzen duzu hori.

**Ez da hutsik egiten ez duen metodoa izango zuena, ala?**

Zoritxarrez ez. Gurera etortzen direnetatik %70ek lortzen dute tabakoa uztea. Ikastaroa egin eta handik urtebetera gehienek ez dute zigarrorik erretzen. Erretzaile guztiek tabakoa utzi nahi dute, baina sufritu gabe. Eta posible dela frogatu dugu. Besteak beste, MCC taldearekin eta Osakidetzarekin elkarlanean ari gara azkenaldian.



*“Tabakoa droga bat da, eta abstinentsia sindromea kentzea beharrezkoa zaie erretzaileei”*



**Perretxiko batze galanta**

Perretxikozaleendako sasoi aproposa da oraingoa. Aurreko astean Juan Asula bisitari izan genuen BERRIGARAKO erredakzioan. Irailaren 21ean Nafarroa aldean ibili zen perretxikotan eta argazkian ikusten den sorta ederra batu zuen Asulak. Hain zuzen ere, Ibañeta eta Luzaide ingurura joan eta 30 kilotik gora jaso zituen. Ohi duenez, lagun artean banatu zituela esan zigun. Estimatzeko oparia.

LABUR

**1947an jaiotakoek Remelluri upelategian bazkaria egingo dute azaroaren 5ean**

1947ko jaiotako bergararrek Bastidara irteera egingo dute azaroaren 5ean. Irteera 10:30ean egingo dute eta Bastidan ibili ondoren, Remelluri upelategian bazkalduko dute. Izenematea (47 euro) Euskadiko Kutxan egin daiteke, urriaren 29a baino lehen.

**Eskola orduetatik kanpo euskara lantzeko ikastaroa Jardun elkartearen eskutik**

Aurreko ikasturteetan bezala, eskola orduetatik kanpo euskara lantzeko aukera eskaintzen die Jardunek 5-12 urte bitarteko neska-mutikoei. Lehen Hezkuntza amaitzean, euskaraz normaltasunez jardutea da helburua. Berba egitera bideratutako jolasak edo eskulanak izango dira saioen oinarria. Euskara errefortzuak urriaren 10ean hasiko dira. Argibideak Jardunen (943 76 36 61).

**ETXE BERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**BERGARA MARMOLERIA**  
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimarak*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77



**POL-POL**  
Taberna

943 76 07 78. Bergara



Txapelketak otsailean hasiko dira. Bien bitartean, Federazioak antolatzen dituen kontzentrazioetan izango dira Ariznoakoak.

**GIMNASIA ERRITMIKOA/** 5 eta 19 urte bitarteko 100 bat neska dabilta aurtan

## Ariznoa gimnasia taldeak denboraldiari ekin dio

E.M.

Ariznoa Gimnasia Erritmiko taldeak denboraldia hasi du. Guztira, 5 eta 19 urte bitarteko 100 bat neska dabilta aurtan. Otsailera arte txapelketekin hasiko ez diren arren, dagoeneko gogor entrenatzen hasi dira.

Sonia Corredera eta Ane Susaeta eibartarrak dira Ariznoako entrenatzaileak. Susaetak bigarren denboraldia egingo du aurtan eta Correderek, berriz, bost urte daramatza Ariznoan. Nagusiekin irailaren 6an hasi ziren entrenatzen eta txikiekin, aldiz, San Martin jaien ostean.

Esan bezala, euren aginduetara 100 neska izango dituzte aurtan: 5 urtetik gorakoek osatzen duten oinarrizko eskolan 50 nes-

katila arituko dira; benjamin mailan beste 25 (9-10 urtekoak) eta, azkenik, eskola arteko txapelketatan lehiatuko direnak 30 lagun izango dira, 10-19 urte bitartekoak. Hauen artean Uxue Arregi (19 urte), Izargi Vega (18), Irati Arteaga (17), Virginia Odriozola (17) eta Sarai Ruiz (16 urte) ditugu taldeko beteranoak.

### IAZKO EMAITZAK ERREPIKATU

Sonia Correderen arabera, "iaz taldeka lortu genituen emaitzak

*Kiroldegian eta Matxiategiko Aranzadi Ikastolan egiten dituzte entrenamenduak*

errepikatzea eta, ahal bada, bana-bana emaitzak hobetzea da helburua". Joan zen denboraldian, A mailako eskola arteko txapelketan, alebin, infantil, kadete eta gazte mailetan Euskadiko txapelkunak izan ziren taldeak.

### GIMNASIAREKIN GOZATU

Bestalde, oinarrizko eskolan ari diren neskatilen gainean zera diosku Correderek: "gimnasia-rekin gozatzea da helburua. Psikomotritizitatea eta gorputz espresioa lantzen ditugu batik bat". Oinarrizko eskolakoak bi aldiz entrenatzen dira astean, txikienak 45 minutuko saioetan eta gainerakoak ordubetez.

Kiroldegian eta Matxiategiko Aranzadi Ikastolan egiten dituzte entrenamenduak. Kiroldegian entrenatzeko ordu gehiago izatea nahiko luke Ariznoako entrenatzaileak.

## Hiru eskubaloitako partidu aste bukaeran kiroldegian

E.M.

Bergara KEko eskubaloitako taldeek hiru partidu jokatu dituzte aste bukaeran Labegaraietan. Bihar, zapatua, gazte mailako mutilen taldeak Tolosaren aurka jokatu du, 16:15ean eta ondoren, senior mailako mutilen taldeak Urolaren bisita izango du, 17:45ean. Ligako lehenbiziko partidua galdu egin zuten bergararrek domekan, Elgoibarren, 20-16ko emaitzarekin.

Domekan, gazte mailako nesken taldeak Aloñaren aurka

neurtuko ditu indarrak, 12:15ean. Jarraian etxean jokatzen duten bigarren partidua izango da. Ehari alderen aurka galdu zuen Bergarak joan den asteburuan, 18-23.

### 12-13 URTEKO NESKA-MUTIKOEI DEIA

Infantil mailako taldeak osatzeko ahaleginetan dabil eskubaloitako saila. Eskubaloian jokatzea nahi duten 12 eta 13 urteko neska-mutilak kiroldegira joan daitezke eguazten eta egubakoitzean, 17:30ean.



Senior mailako taldeak 20-16 galdu zuen aurreko domekan, Elgoibarren.

## LABUR

### Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako lau partidu gaur arratsaldean Udal Pilotalekuan

Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako lau partidu jokatu dira gaur, egubakoitzean, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Bigarren gazte mailan, lehen bikoteak Lazkaoen aurka jokatu du eta bigarren bikoteak, berriz, Aurreraren aurka. Senior mailan, banaka, Beñat Inarrrak Aurrera Sayazeko ordezkariaren aurka jokatu du eta banaka Ozkarbiren aurka jokatu du Bergarak.

### Junior mailako saskibaloitako taldeak Gros Xake taldearen aurka jokatu du zapatuan

Bergara KEko junior mailako mutilen taldeak Gros Xake taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 19:15ean.

Senior mailan eta kadete mailan ere mutilen taldeak osatu dituzte saskibaloitako sailak. Kadete mailako neskek 38-68 galdu zuten zapatuan Bergaran, Azpeitiko Ipar Project taldearen aurka.

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09



DIODO LASERRA



Gorputz osoko laser depilazioa

- Hiru hilabete behin
- Tratamendua bukatzeko lau edo sei saio
- Medikatuak egina

GALDETU KONPROMISORIK GABE

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

## GOIERRI

### AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

**ATLETISMOA/** Partaideek 11 kilometro egin beharko dituzte; antolatzaileek 300 lagun biltzea espero dute

# Soraluze eta Bergara arteko herri krosa jokatu da hurrengo eguaztenean


E.M.

Antxintxika Triatloi Taldeak antolatuta, Soraluze eta Bergara arteko Servimasa Saria kros lasterketa jokatu da eguaztenean, urriaren 12an, 11:00etan. Partaideek 11 kilometro egin beharko dituzte. Hain zuzen, herri lasterketa izango da.

Irteera, esan bezala, Soraluzen izango da eta partaideek trenbide zaharretik etorriko dira Bergarara (zazpi kilometro). Bergaran beste lau kilometro egingo dituzte; Zubieta, Fraiskozuri, Agorrosin, Matxiategi, Ibargarai eta Iralatik igaroko dira eta helmuga Fraiskozurin izango da.

## HERRI LASTERKETA

Antolatzaileek 300 bat partaidea izatea espero dute. Izenematea sinbolikoa izango da, 3 eurokoa, eta jasotzen den dirua Antxintxika taldeko Xabi Lekueri laguntzeko bideratuko da. Hain zuzen ere, urriaren 15ean Hawaiko Iron Man proban har-



Antxintxika taldeko Jose Mari Barrenak eta Aitor Rementeriak Valentin Egidazu kirol zinegotziarekin aurkeztu zuten proba.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

tuko du parte Lekuek. Gastuei aurre egiteko zuzenduko da dirua.

Izenematea Arrasaten, Muskola kiroldegian (943 77 16 77), eta

Bergaran, Mapfre aseguru etxean (943 76 18 80) eta Lazkano oinetako dendan (943 76 25 03) egin daiteke. Egunean bertan izena emanez gero, 5 euro.

Autobus zerbitzua egongo da irteera puntura joateko, 09:45ean eta 10:30ean. Partaideen artean hainbat sari zozketatuko dituzte.

# Gazte mailako lehen taldeak Donostiako San Ignacio hartuko du zapatuan Ipintzan

E.M.

Bergara KEko gazte mailako lehen taldeak San Ignacioren aurka jokatu du bihar, zapatua, Ipintzan, 17:00etan. Tonin elgoibartarrak entrenatzen duen taldeak bost partidu jokatu ditu orain arte. Bost puntu dauzkate mahoneroek, lortutako garaipen bat eta bi berdinketei esker. Sailkapenaren erdialdean dira.

## BESTE BI PARTIDU ZAPATU GOIZEAN

Bestalde, nesken futbol-8ko taldeak Eibarko Urkiren aurka jokatu du zapatuan, 10:00etan, eta

ohorezko kadete mailako taldeak Tolosaren aurka jokatu du jarraian, 11:45ean.

Mikel Fernandezek zuzentzen duen nesken taldeak bi partidu jokatu ditu aurtengo ligan, biak galduz. Denboraldiko lehen puntuak lortzea izango da bihar etxekoen asmoa.

Ohorezko kadete mailakoei dagokienez, puntu bakarra daukate. Lehenbiziko partidua etxetik kanpo berdindu zuten, Realaren aurka gainera, Zubietan. Azken bietan, berriz, galtzaile atera dira, bietan 1-0eko emaitzarekin.



Nesken futbol-8ko taldeak Urkiren aurka jokatu du zapatu goizean.

BERRIGARA

## LABUR

### Pilota jaialdia domekan Udal Pilotalekuan

Profesional mailako pilota jaialdia izango da domekan Udal Pilotalekuan, 17:15ean. Lau terdiko txapelketaren barruan Eugi eta Saralegi izango dira aurrez aurre. Jarraian, Gonzalez-Goñi III.a/Irujo-Eulate eta Larralde-Auxkin/Berasaluze IX.a-Arizmendi partiduak izango dira.

### Pol-Pol eta Gorla mendizale taldeekin irteera domekan

Gorla Alpinok eta Pol-Pol Mendizale Taldeak domekan, urriaren 9an, Ziordia eta Bakedanora joateko irteera antolatu dute.

Irteera Frontoitik egingo dute mendizale betanoek, 09:30ean. Hurrengo irteera azaroaren 20rako iragarri dute. Hain zuzen ere, Lizarrusti eta Zaldibi aldera joango dira egun horretan.

### Igeriketa egokituko ikastaroa kirol zerbitzuen eskutik

Azken urteotan egin ohi dutenez, ezgaitasunen bat dutenei zuzendutako igeriketa egokituko ikastaroa eskainiko dute Debagoieneko kirol zerbitzuek.

Ikastaroan izena emateko edota argibidetarako Bergarako Udal Kirol Zerbitzura jo dezakezue. Hau duzue bertako telefono zenbakia: 943 77 91 67.

## LABEGARAIETA

### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

#### ZAPATUAN, BARRUAN

- 09:30: Pub Irish-Niu Tim. Irubide
- 10:30: Kalaveras-Irubide. Niu Tim
- 11:30: SDTNT-Txakurra. Santana
- 12:30: Santana-Paco Cia. Txakurra
- 16:00: Pirulotarrak-Belengua. Brescia
- 17:00: Brescia-Egurre. Fit Autom.
- 18:00: Fit Auto.-Komando. Teatekh
- 19:00: Teatekh-All Blacks. Guri Guri
- 20:00: A Ze Flaxa-Guri Guri. All Blacks

**OHARRA:** Eguaztenean, hilaren 12an, partiduak izango dira.

**Sugoi**

ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea  
943 76 59 54 BERGARA

**Dixula**

BOKATAK  
DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
BERGARA  
Tel.: 943 76 44 95

**margolan**  
m a r g o a k

- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ margo industrialia
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ erreformak orokorrean

Sagasti auzoa Z<sup>a</sup> 5-3D  
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955  
687 570 777

## ELKARRIZKETA

ENAITZ ALUSTIZA ETA ASIER IRIONDO/JARDUNEKO BERTSO ESKOLAKO IRAKASLEAK

*“Bertso eskolan, bertsoaz ez ezik bizitzako beste gauza batzuez ere ikasten da”*

IRATI AGIRREAZALDEGI

Asteon hasi dute ikasturtea Jardun elkarteko bertso eskolakoek. Aurten Enaitza Alustizak eta Asier Iriondok jardungo dute irakasle lanetan. Bertso-zaleak gonbidatu nahi dituzte eguazteneroko saioetan parte hartzera.

**Ikasturtea hasi berri da bertso eskolan. Zenbat ikasle daude aurten?**

Enaitz: Bi talde daude bertso eskolan: haurrena (12 urte bitartekoena) eta gazte eta helduena (15 urtetik gorakoena). Lehenengoan seik hasi dute ikasturtea, baina gehiagok izena ematea nahi genuke; beste taldean dozena inguru hasi dira. Denetariko jendea dago, maila askotarikoak. Batzuek oinarrizko ezagutzak dituzte eta beste batzuek bat-batean jarduteko gai dira.

**Zein helburu duzue ikasturte berrirako?**

Enaitz: Bertso eskolarekin hasi ginenean gure helburua zen jendea bertso-zaletzea, bertsolaritzarekin harremana izatea. Baina lau ikasturteren ostean, helburu hori lortu egin dugu; beraz, orain gure asmoa da bat-bateko-tasuna gehiago lantzea.

**Aurten bi irakasle jardungo duzue. Aldaketarik izango da?**

Asier: Hasierako ilusioa denborarekin galdu egiten da; gainera, ikasleek ohitura jakin batzuk hartzen dituzte, eta aldaketa beti da aberasgarria. Antzerako ibilbidea jarraituko dut, baina proba egin nahi dugu ea taldean nola moldatzen garen bi irakaslerekin.

Enaitz: Urte batzuk irakasle lanetan bakarrik eman ostean, ikusi dut batez ere helduen taldea gelditu samar dagoela. Beraz, irakasle berria ekartzeak oxigeno pixka bat emango dio bertso eskolari; Asierrek bizigarriak ekarriko dituela uste dut.



I.A.

*“Bat-batean egitera edozein iritsi daiteke; ongi egiteko batzuek abildade handiagoa dute”*

**Edozeinek ikas dezake bertsoan?**

Asier: Bat-batean egitera edozein iritsi daiteke. Gai bat eman eta 30 segundo baino lehen zortziko bat edozein bergararrek bota dezake. Hortik aurrera mezua nola

*“Denek ez dute jendaurrean kantatu nahi; baina nahi duenik bada, aterako da”*

eman, indarra non jarri... Ongi egiteko batzuek besteek baino abildade handiagoa dute.

**Nolakoak izango dira asteroko eskolak?**

Enaitz: Ez daukagu programa zehatzik, baina martxan hasita

koan, ikasturteak aurrera egin ahala erabakiko dugu nolako jarduna izango duten eskolek, Ekitaldi zehatz batzuk egingo ditugu, eta horren arabera moldatu egingo dira asteroko klaseak.

**Inor irtengo da plazara bertsoan egitera Bergarako bertso eskolatik?**

Asier: Oraindik ez ditut ikasleak ezagutzen, baina pentsatzen dut baietz. Norberaren borondatearen arabera ere bada hori. Denek ez dute jendaurrean kantatu nahi; baina nahi duenik bada, ziur aterako dela. Eta nahi ez duenak ez du egingo; ez dugu inor derrigortuko plazan kantatzera.

Enaitz: Ikasle bakoitzak markatu behar du bere helburua. Batek lagun artean ziriari bertsoan erantzun nahiko du; besteak txapelketa baten parte hartu. Beraz, norbaiten helburua bada plazan kantatzea, ziur aukerako izango dituela.

**Ohiko eskolez gain, ekintza bereziak ere egingo dituzue.**

Enaitz: Asierren etorrerarekin, besteak beste, eskola bizitzea da gure nahia; eskola hutsetan geratuz gero bertso eskolak ez du aurrera erraz egingo. Beraz, egingo ditugu gauza bereziak: Txapelketa Nagusiko saioetara joango gara, bertso afariak egingo ditugu, ikuskizunen bat gertatuko dugu...

Asier: Bertso eskolako kideei begira ez ezik, saiatuko gara bestelako ekintzak egiten kanpora begira, bertsoak herrian presentzia izan dezan.

**Nola animatuko zenukete jendea bertso eskolara joan dadin?**

Enaitz: Euskara gustuko dutenei esango nieke hitzarekin jolas egiteko modu polita dela bertsoa.

Asier: Bertso eskolan, bertsoaz ez ezik bizitzako bestelako gauza batzuez ere ikasten da: jendaurrean hitz egiten eta egoten; tentsio egoerak gaingiditzen... Medioetan jarduten duen jende asko da bertso eskolatik pasatokia.

## LABUR

**Historiaren gaineko hitzaldiak martitzen eta eguenean**

Bergarako Herri Eskolak egitasmoaren baitan, Euskal Herriko historiaren gaineko ikastaroa antolatu du Bergarako Herri Mugimenduk. Datorren astean bi hitzaldi izango dira: urriaren 11n, martitzena, Julio Araluzek abertzaletasunaren sorreraz jardungo du; urriaren 13an, eguena, II. Errepublikari eta gudua izango ditu hizpide Jesus Gutierrezek. Hitzaldiak kultur etxean izango dira, 19:00etan.

**Metal musika entzuteko aukera asteburuan Jamen**

Bi kontzertu izango dira asteburuan Jamen aretoan. Gaur, egubakoitza, Gamma Ray, Nocturnal Rites eta Powerwolf taldeek jardungo dute, metal erako doinuak jotzen. Ateak 20:00etan zabalduko dituzte eta sarrerak 22 euro balio du. Domekan, berriz, Vader, Rotting Christ, Anorexia Nerviosa eta Last Soul-en doinuak entzun ahal izango dira. Horiek ere metal musika egiten dute. 20:00etan irekiko dituzte aretoko ateak eta kontzerturako sarrera 15 euro izango da.

**Taun-Taunen ‘Galtzerdia’ lana gaur Elorrioren**

Taun-Taun antzerki talde bergararrak txotxongilo saioa eskainiko du gaur, egubakoitza, 22:30ean, Elorrioko Arriola aretoan. Mariasun Landaren ipuin batean oinarritutako *Galtzerdia* lana erakutsiko dute Itxaso Azkaratek, Inaki Matak eta Karlos Odriozolak. Izenburuak berak erakusten duen moduan, zulatutako galtzerdi baten istorioa kontatuko dute. Panpina handien gain, bestelako tresnak eta teknikak ere erabiliko dituzte ikuskizunean: eskularruak, hagatxoak...

**U**  
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

**MUJIKA FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

**KONDE PANADEROKUA**



Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

**MIZPILDI**



**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

MINGAINARITIRAKA

NIREBIDAIAHURA / Enara Ruiz de Egin

NIKARAGUA / 2005eko abuztuan

**A**buztuaren 5ean abiatu nintzen Nikaraguara. Hegaldiarekin arazo batzuk izan nituen eta bi egun berandu iritsi nintzen Managuako aireportura. Inoiz ez nintzela iritsiko pentsatzen hasita zeuden arren, zain nituen taldekideak, tartean Hugo nire mutil-laguna eta Ana Txurruka bergararra.

Bai ni eta baita taldekideak ere FISC gobernuz kanpoko erakundearen bitartez joan ginen. Urteak daramatza talde horrek "Redes de Solidaridad" izena daraman proiektua garatzen. Managuako auzo pobre batean egiten dute lan. Hantxe eskola bat, mediku kontsulta bat, botika txiki bat eta bertako haur eta langileentzat jangela bat daukate. Txerri granja bat eta etxebizitzak eraikitzeke blokeak egiten dituen lantegi bat ere badira, auzoko jendeari lana emateko helburuarekin.

Gu hantxe egon gara hila-betez. Goizetan eskolan laguntzen genuen. Egun batzuetan eskolaurreko haurrekin egoten nintzen eta beste batzuetan zailtasunak dituzten haurrei irakurtzen eta idazten irakasten. Auzo honetan, haur askok ez dute eskolara joateko aukera handirik izaten, anai-arrebak eta etxea zaindu behar izaten dituztelako gurasoak lanean dauden bitartean. Jangelan ere laguntzen genuen, baina, egia




*"FISC gobernuz kanpoko erakundearen bitartez joan ginen Nikaraguara"*

*"Behar asko dituzte, baina, era berean, asko eskaini eta eman digute guri nikaraguarrek"*

dituzte, baina, aldi berean, asko eskaini eta eman digute guri. Esperientziak bistan utzi digu badaukagula zer eman eta baita zer jaso ere! Ay, Nicaragua Nicaragua...

AINTZANE IRIZAR



Roman Olaizola

HHI-KO IRAKASLEA

Soraluzetarra da Roman eta 40 urte ditu. Hamalau bat urte daramatza irakasle, azkeneko biak Bergarako Helduendako Heziketa Iraunkorreko eskolan. Ipintza institutuan ere ibilitakoa da orain dela urte batzuk.

**Ikasle ala irakasle izatea nahiago?**

Bakoitzak bere alde onak eta txarrak dauzka; irakasle izateak erosotasun batzuk badauzka, baina ardurak ere handiak.

**Ikasle ona zinen?**

Txikitan oso txarra nintzen, baina, denborarekin, hobera egin nuen.

**Eta zure irakasleen ze oroitzapen daukazu?**

Orokorrean, oso ona.

**Zer behar du irakasle on batek?**

Ikasgaiarekin benetako interesa edukitzea; oso garrantzitsua da gustatzen zaizuna irakastea. Bestalde, irakasle on batek asko irakurri behar du.

**Zure lanean, zer gustatzen zaizu gehien?**

Ikasleak emaitzekin pozik ikustea.

**Eta gutxien?**

Helburu gabeko edo inora ez doan ikasgai bat eman behar izatea.

**Aldatzekotan, zertan lan egin nahiko zenuke?**

Neure eskuekin egindako, eraikitako zerbait ikustea faltan sumatzen dut; irakasle zarenean, zaila izaten da egindako lanaren emaitzak ikustea.

**Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?**

Mendian ibiltzea eta eskalatzea.

**Mendi bat?**

Pirinioetan asko ibilitakoa naiz, baina, azkenaldian, Leongo mendiak gehiago gustatzen zaizkit.

**Film bat?**

Atzo bertan ikusi nuena: *Aupa Etxebeste!*

**Liburu bat?**

*Corazón de Ulises*, Javier Reverterena.

**Musika talde bat?**

Rai musika estiloa gustatzen zait, musika magrebtarra.

**Zela definituko zenuke zure burua?**

Oso urduria naiz eta nire burua langiletzat daukat.

**Bukatzeke, amets bat?**

Mendian ibiltzen jarraitzea.



XXXXXXXXXXXXXXXX

AINTZANE IRIZAR

**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



Musika eta liburuak



Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52  
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

esf erakundea elkarlanean fundazioa

## BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Ze kaletan dago ezkerreko ataria eta ze plazatan eskumakoa?



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**MERTXE ZELAI**arendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Mertxe!

Galderaren erantzun zuzena: **Maduran.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA: .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOQA .....

## Baque kafe ehoa

Naturala edo nahasketa, 250 g.

# 1,45 €

241 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



## ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

### San Bartolome jaiak Zabaleta auzoan

**Z**abaleta auzoan, abuztuaren 24an San Bartolome egunean ospatzen dituzte jaiak. 1972an auzotarrak eta gonbidatuak elkartu ziren jai giroaren usainean eta bide batez erretratu ere atera zuten guztiak batera. Ordutik hona urte batzuk pasa arren, oraindik ere abuztu amaieran izaten da festarako aitzakiarik Zabaletan.

Garai zaharrak gogoratu hona hemen argazkian agertzen direnen izen-abizenak:

Goian, ezkerretik hasita: Lorentzo Zarraoa, Mikel Balantzategi, Karmelo Errarte, Jose Luis Ormaetxea, Iñaki Balantzategi, Migel Mari Arantzabal, Iñaki Gorosabel, Juan Mari Azkarraga, Jabier Zarraoa eta Enrike Ormaetxea.

Behean: Jose Mari Zarraoa, Iñigo Azkarraga, Sebastian



Arantzabal, Josu Arantzabal, Jose Luis Errarte, Iñigo Azkarraga, Cayo Iribekanos eta Ramon Azkarraga.

Argazkia: Juli Arantzabal

### ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zator BERRIGARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33), Elgetako kultura etxera edo Oñatiko Laixanera. Zain gaituzu!

## FARMAZIENTXANDA

### EGUBAKOITZA, 7

CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74

### ZAPATUA, 8

ZABALA, Barrenkalea 25... 943 76 16 87

### DOMEKA, 9

ZABALA, Barrenkalea 25... 943 76 16 87

### ASTELEHENA, 10

GUALLAR, San Antonio 5... 943 76 11 05

### MARTITZENA, 11

ESTELLA, Matxiategi 5... 943 76 19 63

### EGUAZTENA, 12

MOZOS, Iparragirre 2... 943 76 12 15

### EGUENA, 13

CAMACHO, Oxirondo 4... 943 76 11 74

## TELEFONOAK

### OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda)... 943 03 54 00  
Bergarako Udaltzaingoa... 943 77 91 06  
Antzuolako Udaltzaingoa... 943 76 62 46  
Ertzaintza... 943 53 47 20  
Osasun etxea... 943 76 24 40  
Asepeyo... 943 76 16 43  
Pakea... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua... 943 76 62 23  
Odol emalleak... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak... 943 76 51 06

### GARRIAOK

Taxiak... 943 76 19 50

### UDALA

Bergarako Udaletxea... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa... 943 77 91 32  
Igerilekuak... 943 76 20 51  
Kultura etxea... 943 77 91 58  
Liburutegia... 943 77 91 62  
Kiroldegia... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza... 943 76 13 68

### BESTELAKOAK

Epaitegia... 943 76 14 92  
Erregistroa... 943 76 13 15  
Jardun... 943 76 36 61  
Postetxea... 943 76 26 85  
Bedelkar... 943 76 04 68  
Akulu AEK... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza... 943 76 10 73

## MEZAK

### URTE-MEZAK

#### Santa Marina

Hileko bigarren domekan,  
10:30ean eta 13:00etan.

#### San Pedro

Hileko hirugarren domekan,  
09:30ean eta 12:30ean.

## URBANOAK

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,  
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,  
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20  
eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildu okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta/Olabarretetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,  
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50  
(Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Ola-  
tik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00  
eta 20:40.


GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiurre, Martoko, San Antonio, Espoliza (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.



## ATREBENTZIAEZPADA/ Zer iruditzen zaizu etxabe komertzialetan etxebizitzak egitea?



NAGORE URTZELAI



ASIER ETXANIZ



BEGOÑA BARRUTIA



AMAIA BENGOA



MIKEL MOÑUX



GERMAN LETE

Ongi iruditzen zait. Etxebizitzaren prezioa oso garestia da eta gazteok alokairutik ezin irtenda gabiltza. Irtenbidea Gobernuak prezioak jaisteaz litzateke, baina bitartean beste aukera bat da hau.

Oso ongi iruditzen zait. Ez da irtenbidea, baina aukera bat bai gutxienez. Nik badut etxea, baina izango ez banu egingo nuke aukera horren alde. Inguruan baditut etxe bila dabilzanak, eta badakit zer den hori.

Oso ongi iruditzen zait. Erreka gainean etxabe baten egin dute etxea, eta ideia ona dela uste dut. Gainera, etxabe komertzial asko daude itxita eta hutsik, eta horiek aprobetxatu behar dira.

Ongi. Badakit Arrasaten egin dutela, eta hemen egiteari ongi deritzot. Nik besterik ezean hartu egingo nuke aukera hori. Hala ere, nire ustez hobe litzateke hutsik dauden etxebizitzak merkaturatzea.

Ongi. Beste etxe bat dut, baina eskura izanez gero eta beharra banu, aukerari ez nioke ezetz esango. Etxabek ere, besteak baino gutxiago izan arren, ordaindu egin behar dira, eta horrek ez du arazoa konpontzen.

Ongi iruditzen zait. Aukera ona da diru gutxiago ordainduta etxebizitza baten sartzeko. Nik beste lekuri ez banu ez nuke alboratu utziko etxabe komertzial batean egindako etxebizitza.


## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK TXIZA USAINA** Herritar batek bere kexa azaldu digu Irizarko lorategiko hainbat txokotan egoten den txiza usaina dela eta. "Ez dakit txakurrena edo pertsonena den, baina izugarritzko kiratsa egoten da". Bestalde, batek baino gehiagok esan digu herrian ez dagoela komun publikorik, eta hori ere izan daiteke arrazoia. //A.

## BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Puntako"



—Aldazabal etzan punta-puntako pelotarixa izan bai atzelari ona bai.

JON IRAEGI

## BESTEKE ESANA

“Euskal Herriaren aldeko urratsak egiteagatik edo naziotasuna aldarrikatzeagatik denbora asko daramagu erasoak pairatzen eta oldarraldiak sufritzen. Esan liteke ez-pata moduko bat dugula etengabe gure gainean, eta edozein unetan, edozein epailek gure aurka jotzeko erabakia hartu dezakeela. Horren aurrean, ez dugu tresna sendorik aurre egiteko eta erasoengandik defendatzeko, eta gure helburua hori da, halako tresna bat sortzea. Eragileekin izan ditugun harremanetan ikusi da badugula tresna horren beharra, erasoak gertatzen direnean, konturatzen garelako nolako babes falta daukagun”.

**MAITE ARISTEGI / Nazio Eztabaida Guneke Larrialdi Batzordeko kidea 'Gara' / 05-09-30**

## BERAIEKDIÑO / Andres Osa Sakona



Endredo hutsa

Euskal gatazkari irteera aurkitu nahian ba omen dabilza zerbait mugitzen. Kontakatuak ba omen daude. Txikiak badira ere Alderdi Sozialista urratsak ematen omen dabil. Oraintxe omen da Ezker Abertzalearentzat trena ez galtzeko azken aukera. ETAK armak behin betiko baztertzeko garaia omen da. Guztiz ahulduta omen dago erakunde armatua. Une historikoan omen gaude Espainiarekin bizi dugun gatazka gainditze bidean jartzeko. Omen eta omen. Honela, etengabeko jardunak ari gara entzuten azken hilabete hauetan.

Baina gauza batzuk oso garbi izan beharko ditugu engainuan ez erortzeko. Lehenik eta behin esan behar da, orain arte ezer ez dela egin bide zuzenean. Zerbait egin bada herritarrengan itxaropen txoroak sortzea izan da.

Gatazka gainditzeko ezinbestekotzat jo behar da sukaldeko lana. Lan honetan sukaldariak autodeterminazioa, Euskal He-

rriari hitza eman eta errespetatzea, irtenbide demokratikoa, etorkizuna erabakitzeke ahalmena, burujabetza, naziotasuna... guztia jarri behar da eltzean. Markoa marrazten hasten ez den bitartean aipatutako omen guztiak horixe dira, omenak. Atariko lan batzuk behar bada tontzean ari dira. Presoen hurbilketa, legez kanporatzea gainditzea, kontzertu ekonomikoaren garapena, kupoa... Hau guztia atariko lana da. Baina sukaldeko lana hasten denean esan ahal izango da irtenbide demokratikoari atek zabaltzen ari teaten ari dira. Presoen hurbilketa, legez kanporatzea gainditzea, kontzertu ekonomikoaren garapena, kupoa... Hau guztia atariko lana da. Baina sukaldeko lana hasten denean esan ahal izango da irtenbide demokratikoari atek zabaltzen ari teaten ari dira. Presoen hurbilketa, legez kanporatzea gainditzea, kontzertu ekonomikoaren garapena, kupoa... Hau guztia atariko lana da. Baina sukaldeko lana hasten denean esan ahal izango da irtenbide demokratikoari atek zabaltzen ari teaten ari dira.

Honetan guztian jakin behar da P(SO)Ek ez duela sukalde lanean ezer egingo. Sukalde lanak bere ideologian eta politikan ez du tokirik. Atariko lanarekin endredoan ariko da dena nahastu eta kakaztu nahian. Nor engainatu behar du Rubalcabak, *intrigista* profesionalak, gezurra eta egia temple berdinarekin erabiltzen duen gizonak?. Endredoak eta entretenimendua soil-soilik.

“Euskal gatazka gainditzeko bidean ezinbestekotzat jo behar da sukaldeko lana egitea”

## HAUGIROA!

MINIMOA 10 °C  
Domeka, 2

MAXIMOA 28 °C  
Egubakoitza, 30

ASTEKO EURIA (l/m<sup>2</sup>) 10,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 28	26 °C	13 °C	0,3 l/m <sup>2</sup>
Eguena, 29	21 °C	14 °C	— l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 30	28 °C	10 °C	— l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 1	20 °C	10 °C	7,1 l/m <sup>2</sup>
Domeka, 2	17 °C	10 °C	3,4 l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 3	17 °C	10 °C	— l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 4	20 °C	10 °C	— l/m <sup>2</sup>

San Juan auzoan jasotako datuak

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 25 05 02  
Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Aintzane Irizar  
Iratzi Agirreazaldegia  
Oihana Elortza  
MAKETAZIOA  
Maitena Arana

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAI LEAK  
Luis Mari Agirre  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereziar

LEGE-GORDAILUA  
SS-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
8.680 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko urriaren 7a / 259. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

## Tokiko Agenda 21en prozesua aurrera doa eta martitzenean dute hurrengo foroa

AINTZANE IRIZAR

Datorren asteko martitzenean, urriak 11, egingo dute Tokiko Agenda 21 lantaldearen hurrengo batzarra. Olanaren izango da hori, 19:00etan. Hitzordu hori aitzakia hartuta, orain arteko batzarrak zela joan diren eta zein lan egin duten jakin nahi izan dugu.

Tokiko Agenda 21en helburua da herriaren gaur egungo egoera ezagututa, etorkizunerako helburuak zehaztea eta helburu horiek lortzeko ekintza planak diseinatzea. Guzti hori Udalaren kudeaketa egoki bat eta garapen iraunkor bat lortzeko.

EAEko beste 170 udalerritan ere bultzatzen diharduten prozesua da Tokiko Agenda 21, baita Debagoienean ere. Tokiko Agenda 21 konpromisozko ekimen gisara definitzen dute, etorkizuneko proiektu bezala; proiektu horretan agintari, herritar eta erakundeek euren udalerritaren garapen iraunkorraren oinarriak ezarri behar dituzte.

Prospektiker aholkularitza zerbitzuak kudeatzen ditu Antzuolako foro edo batzarrak eta



Tokiko Agenda 21 proiektuan udalerritaren garapen iraunkorraren oinarriak ezarri behar dituzte.

horietako emaitzak. Udaleko arduradunekin batera, edozein herritarrek izan du eta du batzarretan parte hartzeko aukera. Horixe da, gainera, Tokiko Agen-

da 21en ardatza; herritarren parte hartzea. Prospektikerko arduradunek adierazi digutenez, Antzuolan oso handia izan da parte hartzea.

### PROZESUA AUERRERA DOA

Hasteko, Prospektikerrek herriaren egoera ekonomiko eta sozialaren eta ingurumenaren egoeraren gaineko diagnostikoa egin

*Ekintza plana abenduan onartzen espero dute; orduan egingo dute aurkezpena*

zuen. Diagnostiko hori izan da foroetan lan egiteko tresna; honela, alor sozio-ekonomiko eta ingurumeneko gaien inguruan egin da hausnarketa eta eztabaida.

Lehenengo hiru batzarretan herriaren egoeraren analisia egin dute: herriaren alde ahulak eta indartsuak, dituen aukerak eta mehatxuak... Laugarren batzarrean, berriz, aurrez ateratako ideiak oinarritzat hartuta, proposamenak biltzen hasi ziren, ekintza plana diseinatzen hasteko. Helburua da herriaren iraunkortasuna bermatzea; esan bezala, ekintza plan baten jasoko dituzte proposamen horiek.

Ekintza plana diseinatzen dutenean, Udalarri eta herritarrek aurkeztuko diete. Arduradunek espero dute abendurako ekintza plana onartuta edukitzea.

## HERRITARREN HITZA / Fernando Lete • Elkarriko kidea

### Alderdien mahaia

Gaurko egoera politikoa aukera garaian kokatua dago. Bi urte baino gehiago daramagu heriotza eragiten duten atentaturik gabe eta sumatzen den giro politikoa eta soziala elkarrizketa eta akordioaren aldekoa da. Honez gain, 2007ko udaberrira arte hauteskunderik ez izateak aukera garaia lagundu eta epeetan mugatzen du. Honek esan nahi du 16 hilabeteko tarte egokia dugula aurrean, bake eta akordio itzaropenak bideratzeko, lehen urratsak emanez.

Aldeko baldintzen egoera honetan ezin da baztertu bi

gertaera garrantzitsu eman daitezkeela: ETaren aldetik su-etenen bat eta Alderdien Mahaia bidean jartzea; Elkarrik eszenatoki hori bultzatu eta babestuko du, kanpaina berezi batzuen bidez.

Gaurko egoerak baditu zailtasunak ere; adibidez, mahai bat osatzeko momentua adostea; ETaren tregua edo su-etenen sinesgarritasuna onartzea; mahaian tradizio politiko



**"Hurrengo hauteskunderik arte urratsak emateko aukera dugu"**

ihes egiten laga itzaropenerako trenari. Denok gara beharrezkoak, etorkizuna jokoan dago

guztiak izatea, bazterketa gabe.

Badira bidea zailtzen duten oztopoak ere: indarkeria eta giza eskubideak urratzeak (legez kanporatzeak); bazterketa, mesfidantzak, protagonismoak eta abar.

Zailtasunak zaitasun, aukera garaia nabarmena da eta ezin diogu

eta merezi du denok zerbait ematea, denok irabazi ahal izateko.

Gaia aldatuz, nire zorionik beroenak Ana Mari Toledo euskaltzain-gai berriari, antzuolar denok pozik egoteko moduko albistea da.

Zer hoberik musikarekin amaitzea baino. Eskaini didaten tarte hau aprobetxatzea noa gonbidapen bat luzatzeko. Antzuolako Abesbatzakook kantatzea gustuko duzuen guztiok gonbidatzen zaituztegu adiskidetasunean kantatzera eta eguaztenean udaletxean agertzera. Haize eta jende berriaren beharrea gaude.

## KIROLA

### PARTIDUAK

#### FUTBOLA

Urriak 9  
12:00: Antzuola-Segura (Gazteak)

#### PILOTA

Urriak 7 (Gipuzkoako Txap.)  
20:30: Olalde-Añorga (Gazteak)  
Ondoren: Olalde-RealSoc. (Pala motza)

### EMAITZAK

#### FUTBOLA

Ikasberri 3 Antzuola 1 (2. erreg.)  
Oartzun 1 Antzuola 0 (Gazteak)

#### PILOTA

Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Olalde-Hernani (Gazteak) ... 22-11  
Beloki-Olalde (Nagusiak) ... 22-14  
Zumaiola-Olalde (Pala motza) ... 40-31

KULTURA

# Hika taldearen 'Ixa' antzezlanana ikusteko aukera izango dugu bihar, zapatua, gauean

AINTZANE IRIZAR

Hika antzerki taldeak *Ixa* antzezlanana eskainiko du bihar, zapatua, 22:00etan, Olanan etxeko aretoan. Mikel Laskurain aktore bergararra da biharko antzezlana aktore bakarra. *Ixa* edo *Manuel Tejeroren* papera egiten du berak.

*Goenkale* telesailean egin zitzaizgun ezaguna gehienoi Mikel Laskurain aktore bergararra; orain dela gutxi, berriz, *Obaba* film arrakastatsuan lan egin du, Montxo Armendarizekin. Egunotan, berriz, denboraldi berriarekin hasi duten *Wazemank* ETBko saioan hasi da Mikel. Bera izango da bihar, zapatua, Olanan etxean Hika taldeak eskainiko digun *Ixa* antzezlanean ikusiko dugun aktore bakarra.


Adin guztietako jendeari zuzendutako lana da *Ixa*. Mikel Laskurainek antzezten duen pertsonaiaren izena da *Ixa*; agindu diotelako joan da bera antzokira, eta han konturatuko da antzerkiko jendea ez dagoela prest agin-

dutako lana ordaintzeko. Horrek erabat sutuko du *Ixa*; horrela, eszenatokira igo eta bere historia kontatuko digu. Eta badauka, bai, zer kontatua. La Nabaleko langile izan zenetik gaur egungo gizartean hain garrantzitsua den lanbide berezi bat edukitzeraino pasa dituenak, hain zuzen ere, kontatuko dizkigu. Bere langile eskubideak defenditzeko erabaki gogor bat hartuko du, eta antzokira joaten direnek bakarrik jakingo dute.

## LASKURAIN, AKTORE BAKARRA

Esan bezala, Mikel Laskurain da antzezlana aktore bakarra. Berak zera dio antzezten duen pertsonaiaren gainean: "Figurante politiko-folkloriko-kultural hori nire izaeratik oso urruti dago, baina, horrelako pertsonaiak egon badaude gizartean". Bera aktore bakarra izanda, ikusleekiko harremana zuzenagoa da, baina, horrek ez du beldurtzen aktorea.

Bukatzeke, aipatzekoa da heavy eritmoetan oinarritutako musikak berebiziko garrantzia daukala Hika Teatroa taldearen lan honetan.



*Ixa* antzezlana pasarte bat.

LABUR

## Pausokaren lan eskaintza zaintza zerbitzurako

Pausoka gurasoen elkarteak, eskolako ordutegitik kanpora, zaintza zerbitzua martxan jarri nahi du. Bi eta hamabi urte bitartekoei zuzenduta egongo da zerbitzu hori. Ume-etaz arduratzeko pertsona bat behar dute. Momentuz, zaintza zerbitzuaren ordutegia 07:30etik 09:00etara izango dela erabaki dute guraso elkarteek. Lanpostuarekin interesatuta daudenek urriaren 21a baino lehen laga beharko dute euren curriculum, Pausokak eskolan daukan postontzian. Harremanetarako telefono zenbaki bat lagatzea ere garrantzitsua da.

## Word ikastaroa helduen eskolak antolatuta

Word programaren eta testuen tratamenduaren gaineko ikastaroa antolatu du Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak. Azaroan hasi eta urtarrierara arte, astelehen eta eguaztenetan izango da ikastaroa, 18:00etatik 20:00etara. Olanan etxean, KZgunean egingo dute ikastaro hori. Interesatuek urriaren 21a baino lehen eman behar dute izena, udaletxean.

## Patata tortilla lehiaketa bihar, zapatua, plazan

Urtero bezala, patata tortilla lehiaketa antolatu dute Pausoka guraso elkarteak eta Udalak. Bihar, zapatua, izango da hori, 16:30ean, Herriko Plazan. Bi taldetan antolatuko dute lehiaketa: bosgarren eta seigarren mailakoak talde baten eta DBHko lehenengo eta bigarren mailakoak beste taldean. Talde bakoitzari sei euro emango diete antolatzaileek gastuetarako. Dena plazan bertan egin beharko dute, 16:30ean hasita.



## Onddo laukoitza topatu dute

Onddo laukoitz honekin etorri zitzaizgun Mikel Asensio mutiko antzuolarra. Ez zuen, baina, Mikelek batu, bere senitarteko batek, baizik; Luis Manuel Altube *Txanbok*, hain zuzen ere. Oñatiko Arantzazu auzo inguruan ibilizen *Txanbo* onddotan. Politada, benetan, onddoa; orain lau onddo dituen arren sorta horrek, *Txanbok* batu zuten beste hiru onddo txiki ere bazituen, baina, pixka bat hondatuta zeuden. Onddo nahaski goxoa jango zuten, behintzat! /A.I.

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta  
industriarako pinturak  
•  
Paper margotuak  
•  
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR  
taberna eta  
gozotegia

Buztinuzuri 13 ANTZUOLA  
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua  
eta  
bernizatzea

Kalegoi 21  
Tel.: eta faxa 943 76 64 07  
Poltsikokoa 616 277 999  
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

ANTZUOLA


Apainketak eta  
isolamenduak  
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
676 997 400  
Biltegia: 943 78 70 40

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko urriaren 7a / 241. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegil • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



Torrealdean etxebizitza libreak eraikitzen dihardu Elgetako Etxegintza enpresak.

## Abenduan hasiko dira Torrealdeako babes ofizialeko etxeak egiten

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Eman du zeresanik Torrealdeako babes ofizialeko etxeak eraikitzean izan den atzerapenak. Orain, ordea, gune horretan etxebizitzak eraikitzen diharduen enpresarekin hitzarmena sinatu du Udalak eta eraikuntza lanak abendurako abian jartzea espero dute.**

Torrealdean babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke lanak hila-betetan atzeratu direla-eta, Aralarrek eskatu dio EAJ-EAri batzar bat egitea etxebizitzaren egoeraren, salneurrien eta baldintzen berri herritarrei emateko.

Udaletik jakinarazi digute oraindik eguna zehaztu gabe badago ere bilera azaroan egingo dutela.

Aralarren esanetan, "atzerapena dela-eta kostua igo egingo da, eta Udalaren aurreikuspenak ez dira beteko. Murias etxe eraikitzaileak atzerapena dela-eta

adjudikazioaren gaineko %7ko igoera proposatu du. Igoera hori etxebizitza libreak eraikitzen diharduen Elgetako Etxegintzak eta Udalak ordaindu beharko dute".

### HITZARMENA

Elgeta Etxegintzakoek Udalarekin hitzarmena sinatu dute, eta horren arabera, %3,2 ordaindu behar dute; beraz, Udalak egin behar du gainontzekoaren kargu, 60.000 euro.

Hala ere, hitzarmena sinatuta, geldirik zeuden lanak haste-ko bidea zabalduko da eta aben-

*Aralarren esanetan atzerapena dela eta babes ofizialeko etxebizitzaren kostua igo egingo da*

duan etxeak eraikitzen hasia espero dute Udalekoek.

"Lanen atzerapenak agerian utzi du EAJ-EAren gestio txarra. Udalak esperotako sarrerak erdira jaitsiko dira. Aurrekontuen arabera Udalak Torrealdeako hamar garajeren salmentatik 120.200 euro jaso behar zituen", dio Aralarrek.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak urtero babes ofizialeko etxebizitzetako metro koadro bakoitzaren prezioa igotzen duela jakinda, Aralarrek uste du igoerak eragina izan dezakeela Torrealdeako etxebizitzaren salneurrian: "Bere garaian Udal Gobernuak etxebizitzendako adostutako prezioei eustea da EAJ-EAren betebeharrak. EAJ-EA etxebizitzaren gestioan egindako akatsek ez dute eraginik izan behar elgetarron poltsikoetan".

Udaletik esan digute, ordea, atzerapenak ez duela prezioan eragiten, hori Eusko Jaurlaritzaren kontua delako.

## AISIALDIA

### Ludoteka azaroan zabalduko dute

I.A.

Iaz, ikasturtea amaitzeaz bat, itxi zituen ateak kultur etxeke bigarren solairuan dagoen ludotekak; baina Udalak berriz ere zabaltzea erabaki du.

Azaroan irekiko dute berriz eta apirilaren amaierara bitartean arratsalde egongo da zabalik; 16:00etatik 19:00etara, hain zuzen ere.


Izena emateko astelehenetik, urriaren 10etik, hilaren 21era bitartean jo beharko dute udaletxera interesatuek.

### KUOTAK

Ume bakoitzak hilero 15 euroko kuota ordaindu beharko du; baina familia bereko ume gehiagaudenean beherapenak izango dira: bi direnean bakoitzak hamar euro ordaindu behar ditu eta hiru badira, berriz, zortzina.

Ludoteka zabaldu ahal izateko gutxienez 10 umek eman beharko dute izena. Iaz 26 ume egon zirela kontuan hartuta, espero dute gutxieneko kopurura iristea.

Besteak beste, jolaserako zein eskulanak lagun artean egiteko aukera izango da ludotekan.



Iaz 26 umek eman zuten izena ludotekan.

## LABUR

### Mendi irteera antolatu du urriaren 23rako kirol jarduerak koordinatzeko taldeak

Herrian kirol jarduerak antolatu eta koordinatzeko taldeak mendi irteera antolatu du ume zein helduendako urriaren 23rako. 09:30ean autobusean abiatu eta 12 urtera arteko eskola umek ordu eta erdiko ibilbidea egingo dute: Aittolatik Xoxoteko aterpetxera eta buelta. 16 urtetik gorakoek inguru berean ibilbide luzeagoa egingo dute: Otarre, Kakuta, Xoxote, Izarraitz, Xoxoteko aterpetxera eta Aittola. Izena emateko azken eguna urriaren 18a da.

### Azaroaren 23ra arte ur, zabor eta saneamenduari dagokien zerga ordaintzeko

Gipuzkoako Ur Partzuergoak elgetarrei jakinarazi nahi die azaroaren 23ra arte izango dutela hirugarren hiru hilekoari dagokion ur, saneamendu eta zaborrei dagokien zerga ordaintzeko. Ordaindu aurretik erreklamaziorik aurkeztu nahi bada urriaren 24a baino lehen egin beharko da. Epea pasatuta ordaindu ez duenari ur-horniketa kendu egingo diote.

ELKARRIZKETA

YOHANA MADINABEITIA/ARROPA DISEINUGILEA

“Josten ikasteko gogoa, denbora eta pazientzia baino ez dira behar”

**U**rriaren barrena josten ikasteko ikastaroa izango da Espaloian. Yohana Madinabeitia arropa diseinugile oñatiarrak jostintzaren gaineko oinarriak irakatsiko dizkie elgetarrei: botoiak josten, barrenak hartzen...

Arropa diseinugilea izan arren, jostintzaren oinarriko gauzak irakatsiko dituzu Elgetan, ezta?

Bai, hala da. Batez ere konponketak egiten irakatsiko diet: barrenak hartzen, botoiak josten... Ikastaroak zortzi ordu iraungo du eta askoz gehiagorako ez du ematen. Jendearen erantzunaren arabera baliteke aurrerago gauza gehiago irakasteko aukera egotea.

Zer da zailagoa, josten irakastea ala jostea?

Nik eskua hartua diot josteari eta irakasten ere jarduten dut. Jendeak, ordea, ikasten hasten denean makinari edo jostorrazari beldurra izaten dio; arraro sentitzen dira. Elgetako ikastaroan, denbora izanez gero agian makinaz josteko oinarriak ere irakatsiko ditut.

Jendeak gero eta gutxiago josten du gaur egun?

Lehen, emakumeak jostintza eskoletara joatea ohikoa zen. Gaur egun, ordea, gazteek ez dute askorik josten eta eskolak ere gero eta gutxiago dira. Batzuk, ordea, konturatu dira konponketak beste batek egiteak zenbateko diru kostua duen, eta gero eta jende gehiago animatzen da ikastera; batez ere, gurasoen etxetik kanpo bizi direnak, besteei arropak amak konpontzen dizkie-eta.



OIHANA ELORITZA

**Josten ikasterakoan zer da zailena?**

Patroiekin arropak egitea da zailena; baina oinarriko gauzak erraz ikasten dira. Josten ikasteko behar dena da gogoa, denbora eta pazientzia pixka bat izatea.


**Ze ikasle espero dituzu?**

Neskak batez ere, eta 27 urtetik gorakoak. Gazteagoei konponketak egiten irakastea astuna

iruditzen zaie; jostekotan euren-dako gauzatxoak egingo lituzkete: poltsaren bat, adibidez.

**Zuk jostintza duzu lanbide, ezta?**

Bai, emakume gazteendako arropak diseinatzen jardun dut eta orain alboratu samar badut ere, nire asmoa moda diseinuan lan egitea da. Bitartean besteei josten irakasten diet.



**Itzultzaileak Espaloian lanean**

Literatur itzultzaileen lan-tegia egin dute asteon Espaloian EIZIEk antolatuta, euskaratik beste hizkuntzarako literatur itzulpen-gintza sustatzeko. Jokin Muñozen *Hausturak* liburuaren izen bereko narrazioa lau hizkuntzara itzuli dute: alemanera, italierara, katalanera eta polonierara. Idazlearen laguntza ere izan dute itzultzaileek eta bata bestearen hizkuntzaren eta kulturaren berezitasunak eta itzulpen prozesuko kontuak partekatu dituzte./I.A.

INGURUMENA

**Ikastaroa, konposta egiten ikasteko**

I.A.

**Konpostajeari buruzko ikastaroa antolatu du Maya ingurumen taldeak urriaren 8rako eta 22rako. Abarra taldeak eskainiko du ikastaroa eta konpostajearen gaineko oinarriko gaiak irakatsiko dituzte.**

Hondakin organikoak aprobetxatuz konposta egiten ikasteko bi saio antolatu ditu Maya ingurumen taldeak. Bihar, urriak 8, izango da lehen eta urriaren 22an bigarrena.

**HONDAKIN ORGANIKOAK APROBETXATU**

Ikastaroaren helburua da jendeari irakastea hondakin organikoak aprobetxatzeko plangintzak, prozesuak eta proiektuak egiten. Horretarako, ingurumenarekin eta nekazaritzarekin zerikusia dutenei dei egin nahi diete ikastaroan parte har dezaten.

Izena emateko liburutegira jo behar da; edo Rebeka Uberari edo Mari Karmen Larrañagari jakinarazi. Ikastaroaren kostua 10 euro da.

Bi zapatu goizetan izango da ikastaroa eta saio bakoitza lau ordukoa izango da.

Lehen saioan, hondakin organikoak zer diren eta zergatik eta nola aprobetxatu behar diren azalduko dute. Bestiak beste, aprobetxamendurako estrategiak eta arauak; konpostajearen gaineko manual praktikoa; eta hainbat esperientziaren gaineko informazioa jasoko dute ikastaroan parte hartzen dutenek.

Bigarren egunean, berriz, gaien gainbegiratuaren ostean, bisitak egingo dituzte. Amurrioko inausketa eta moztutako belarren aprobetxamendua ezagutuko dituzte eta baita Burgeluko *Aprobetxa itzazu zure hondakin organikoak* kanpaina ere.

KIROLA

**Bi taldek jardungo dute eskola kirolean**

I.A.

**Ohiko kirol ikastorez gain, Udal Kirol Zerbitzuak eskola umeendako kirol jardunak ere antolatu ditu. Eskola kiroleko jardunetan benjamin eta alebin mailakoek dihardute. Bestalde, umeen karateko taldea ere badago, baita oinarriko soin hezkuntzako ere.**

Benjamin mailako taldean neskek eta mutilek batera jokatzen dute. Areto futboleko, eskubaloian, saskibaloian, atletismoan, esku pilotan, kirol egokitueta, herri kirolean eta badmintonean jarduten dute haiek.

Entrenamenduak eguaztentean 16:30etik 18:00etara bitartean egiten dituzte Josu Etxanizekin; eta asteon bertan hasi dira.

**ALEBIN MAILA**

Entrenamenduak eurekin batera egiten dituzte alebin mailakoek ere; eta kirol berberetan jarduten dute.

Zapatuetan Bergarako eta Antzuolako neska-mutilekin lehiari jarduten dute. Alebin mailakoek txapelketarako taldea antzularrekin osatu dute.

Eskola kirola ez ezik beste kirol ikastaro batzuk egiteko aukera dute umeek. 6 eta 8 urte bitartekoek oinarriko soin hezkuntza saioak egiten dituzte astean behin; bestalde, 8 eta 12 urte bitartekoendako karate eskolak daude eta zazpi lagunek dihardute.

Umeek ez ezik helduek ere kirola egin nahi badute, oraindik taldeetan izena emateko aukera dutela esan digute Udal Kirol Zerbitzuan.

LABUR

**Urteko bigarren odol ateraldia urriaren 10ean izango da, arratsaldean, udaletxean**

Elgetako Odol Emaleen Elkarteak herritarrei jakinarazi nahi die urriaren 10ean egingo dutela odol ateraldia. Odola eman nahi dutenak udaletxera joan beharko dira 18:00etatik 20:00etara bitartean. Bide batez esan nahi dute, Debarroko Odol emaleak Arraten elkartuko direla datorren urriaren 23an. Bertan dominak banatuko dizkiete besteak beste 25 aldiz odola eman duten hiru elgetarri: Karmelo Errarteri; Juan Mari Otxoari eta Jose Mari Arotzenari.

# Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko urriaren 7a / 22. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 25 05 02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05

## ELKARRIZKETA

ERNESTO MURGIONDO ETA GERMAN MEABEBASTERRETXEA/KULTURA ZINEGOTZIA ETA TEKNIKARIA

*“Programazioan esfortzu bat egin dugu, baina jendea egun jakinetan ateratzen da”*

OIHANA ELORTZA

Jaiak amaitu dira eta balorazioa eskatu diegu Ernesto Murgiondori eta German Meabebasterretxeari. Euren iritziz, lasai pasatu dira eta bi zati izan dituzte, jende kopuruari begira. Udazkenak zer dakarren ere galdetu diegu.

**Jaiak bukatu dira. Zein da zuen inpresioa, balorazioa?**

German Meabebasterretxea: Jaiak sei egun iraun arren, lehen egunetan jende gutxiago ibili da. Asko kanpoan egon direla eta beste batzuk ekitaldietan parte hartu ez dutelako, nahiko pobreak izan dira hasierako egunak. Zuzeneko ikuskizunetan ez ezik, tabernariak ere nabaritu dute hori. Bigarren zatian, ordea, zapatutik astelehenera, partaidetza asko igo zen. Herri Egunean eta Errosaixo biharamun egunean urtero egoten da jende asko eta Errosaixo domekan, adibidez, plazan jende gehien egon zen eguna izango zen.

**Jendeak egun finko batzuetan ateratzen da bakarrik?**

G: Duela urte batzuk jasotzen genuen kritika izan zen San Migel biharamun egunean ez zegoela ezer sokamuturrak gain. Aurten ere saiatu gara eskaintza zabalagoa izaten eta esfortzu berezi bat egin da horrenbeste indar ez duten egunetan ekitaldiak antolatzen. Programazioak, ordea, ez du horrenbeste baldintzatzen jendeak jaietan kalera irteteko duen ohitura.

Ernesto Murgiondo: Kanpora doan jendeak ere markatuta du egutegia eta bigarren zatian jende gehiago egon da aurten ere.

**Ze harrera izan dute antolatutako ekitaldiek?**

G: Erik Ringler-en kontzertuak ez zuen izan jendeak uste bezain kostu handia. Giro ona jarri zuen baina 250 lagun ingu-



*Lehen egunetan jende gutxi ibili zen; zapatutik astelehenera, berriz, asko*

ru egon ziren bakarrik, eta pena da. Horietako batzuk, gainera, kanpokoak ziren, propio bera entzutera etorritakoak. Eguraldiagatik, Triki Ta Ke-ren kontzertua motzagoa izan zen; bestela, gainerako kontzertuetan ere jende gutxi egon zen, orokorrean.

E: Haurren ekitaldiak, *trial-sina* eta baita mini motorren eta helikoptero ikuskizuna, adibidez, oso arrakastatsuak izan dira.

*Gorabehera batzuk salbu, aurtengo jai nagusiak lasai pasa dira*

**Dena dela, erromeria talde gutxi izan dira aurten, ezta?**

G: Plaza hutsik ikusteko, azken bizpahiru urte hauetan erabaki dugu talde batek lau ordu-tan jo beharrean, ikuskizun espezifikokoak eta ezberdinagoak ekartzea, nahiz eta denbora gutxiagoan jo.

**‘Karteristak’ ere ibili dira jaietan, ezta?**

E: Herri Egunean ibili ziren.

*Udazkenerako hainbat ikuskizun antolatu dituzte; zinekluba ere hasi da*

Egun hauetan agertu dira udaltzaingoan hainbat diru-zorro, hutsik, ordea.

**Bestelako gorabeherarik izan da jaietan?**

E: Sokamuturretan, adibidez, kolperen bat edo beste hartu du jendeak. Errosaixo biharamunean, txosna gunean, erredurak izan zituzten bi gazteak, berriz, Gurutzetako ospitalean daude oraindik eta bati ebakuntza egin

behar diotela uste dut. Batek eskuan, besoan eta ukalondoan ditu erredurak, hirugarren mailakoak; besteak, berriz, izterrean. Bestetik, seinale batzuk desagertu dira, kontainer bat ere irauli zuten eta plazako argi batzuk ere apurtu dira, besteak beste.

**Iraila osoan egin dira hainbat ekitaldi. Txokolate zaleek azokaz gain, museoa eskatzen dute. Egongo da txokolatearen museoa Oñatin?**

E: Ez dugu ahaztuta gai hori. Museoa egiteko adina material badago baina aztertu beharko da batetik, turismoari begira. Oñatik dituen errekursoak edukita, museoak tokirik ba ote duen; bestetik, tokia izatekotan, 300 metro koadro ingurukoa izan behar da gutxienez, baxua, eta ahal dela erdigunean, eta hori nahiko zaila da lortzea, batez ere Udala-  
eraikinak ikusita.

**Sorpresarik izan da Haurren Egunean, Artzainen Kongresuan, Ekogastronomiak jardunaldietan, Artzain Txakur Txapelketan edo antolatutako beste ekitaldietan?**

E: Ez, egia esan denak oso ondo joan dira.

**Aurten, azkenean, ez da mendi bizikleta martxa egin Hurrengo urtean?**

E: Hori ez dago orain jakiterik, ezin diot galdera horri erantzun.

**Nola dator udazkena? Zer prestatu duzue?**

G: Domekan bertan ageriko pintura lehiaketa eta asteburuan *Aupa Etxebeste!* filma zinemaren. Bestalde, Udalak urtero antolatzen dituen eskulanean ikastaroak azaroan hasiko dituzte eta izena emateko epea zabalik dago. Hilaren 22an, *Otehitza* ikuskizuna izango da Santa Anan eta 23an umeendako ikuskizun bat. Azarorako eta abendurako ere hainbat ikuskizun antolatuko dugu.

# smsoinu

Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

Eskuratzeko modua:

**SOINUAK:** Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA

**ABESTIAK:** Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA

**LOGOAK:** Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA

Deiaren prezioa: 0,90 + BEZa/ Abesti eta logoak (sms 1) Soinuak (2sms)

**7505**  
zenbakira



## Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (SMS 1)  
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

**Himnoak**

Alaves | **ALAVES**  
Athletic Club | **BILBAO**  
Osasuna | **OSASUNA**  
Reala | **REAL**

**Pop-Rock**

Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**  
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**  
Bi Minutuero (Hertzainak) | **BIMINU**  
Dub manifest (Fermín Muguruza) | **DUB**  
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**  
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**  
Etsi duden mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**  
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**  
Etorkizuna (Etsaiak) | **ETORKI**  
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**  
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**  
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**  
Hegal egiten (Itzoiz) | **HEGAL**  
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**  
Ilegia (Ken7) | **KEN**  
Inperuen ate joka (Gatibu) | **INPER**

Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**  
Kaixo (Urtz) | **KAIXO**  
Lau Teilatu (Itzoiz) | **ITOIZLAU**  
Laztana (Lazten) | **LAZTA**  
Loretxoa (Exkixu) | **LORE**  
Marea Gora (Itzoiz) | **MAREA**  
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**  
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**  
No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**  
Salve (La Polla) | **SALVE**  
Sarri Sarri (Kortatu) | **SARRI**  
Sorginen leizean (Exkixu) | **SORGIN**  
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**  
TXUS (La Polla) | **TXUS**

**Trikitixa**

Bexamela ta pastela (Maixa ta txori) | **BEXAMELA**  
Bokespok (Kepa Junkera) | **BOKESPOK**  
Hik lan eta nik jai (Tapia) | **HIK**  
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | **ITSAS**  
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | **KUPELA**  
Mila galdera (Alaitz/ Maider) | **MILAI**  
Nirekin (Gozategi) | **GOZATEGI**

Ny Hirahira (Kepa Junkera) | **HIRA**  
Txanpon baten truke (Alaitz/ Maider) | **TXANPON**

**Folk**

Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**  
Bai euskarari (Pamboa) | **BAI**  
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**  
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorni) | **EUSKAL**  
Euskaldun berriaren balada (Oskorni) | **EUSKALDUN**  
Ez da posible (Ruper Ordoika) | **POSIBLE**  
Furra Furra (Oskorni) | **FURRA**  
Galiziar noa (Oskorni) | **GALIZIARA**  
Gemikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERNIKA1**  
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**  
Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**  
Lepoan hartu ta (Pamboa/Peio) | **LEPOAN**  
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | **MARINE**  
Nere herriko neska maite (B.Lertxundi) | **NERE**  
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**  
Oii Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | **OIAMA**  
Tirauki (Oskorni) | **TIRA**  
Txatxamatxalinetxu (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**  
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**

Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordoika) | **ZAINDU**

**Herrikoia**

Bagare! **BAGARE**  
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**  
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**  
Pintxo-pintxo | **PINTXO**  
San Simon eta San Judas | **SAN**

**Jaietakoak**

Artillero dale fuego | **ARTILLERO**  
Marijaia (Kepa Junkera) | **JAIA**  
San Fermín | **FERMIN**  
San Martzialetak alardea | **SAN MARTZIAL**

**SOINUAK (2 sms)**

Soinu izena | KODEA

Irrintzia | **IRRINTZI**  
Txalaparta | **TXALA**

**JOKOAK (4 sms)**

**BOINK**



**FUTVOLEY**



**NEUTRON2**



**NOR**



**RALLYDELUXE**



**SOBALL**



**OHARRAK**

**1. BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan:

[www.smsoinu.com/bateragari](http://www.smsoinu.com/bateragari)  
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jar zaitzez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitziera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.

\* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / \* Vodafone: deitu 123-ra. / \* Movistar: deitu 609-ra.

**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: [smsoinu@smsoinu.com](mailto:smsoinu@smsoinu.com) / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.

**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahiz baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu **902 01 21 48** telefonora.

Eskuratzeko modua:

**JOKUA:** SOINUJ+hutsunea+KODEA

**7505**  
zenbakira

Prezioa: 3,6 E+BEZa

...ASKOZ GEHIAGO GURE WEBGUNEAN [www.smsoinu.com](http://www.smsoinu.com)

## Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



**Zoru aukera zabala**  
Tarimak  
Parket flotatzaileak, bernizatuak  
eta estratifikatuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE**  
AROTZEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
610 884 020



**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



**ALBAITARIAK**

**ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67 / 607 48 71 19

**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala)** 609 54 16 13

**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

**ANALISI KLINIKOAK**

**LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

**BARNE MEDIKUNTZA**

**IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

**DENTISTAK**

**AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46

**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 36, behe. 943 76 05 77

**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

**CAVIGLIA Silvana** S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

**SAINZ Ana** Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69

**TRIPALDI Enrike** Justo Garate 1. 943 76 70 76

**DIETISTAK**

**ALBERDI Mireia** Olanan etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA

Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

**FISIOTERAPEUTAK**

**ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**BASTERRETXEIA Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**UNZUETA Irene** San Martin Osasundegia. Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

**MASAILARIAK**

**AZPEITIA Irune** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

**PODOLOGOAK**

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA** Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84

**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

**PSIKIATRA**

**GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

**PSIKOLOGOAK**

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

**YOGA**

**SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.





Gehiago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 51. alia

## IEPA LAGUNOK!

**H**emen nator berriro be zuokin jolasian egitteko gertu! Eurixa hasi bazan be, zelako ondo jo ziñuen danborra San Martiñetan! Datorren urtian gehiago. Badakizue dagoeneko udazkenian garela, ezta? Oin egunak motzaguak dira, hotza eta eurixa egitten hasi da eta laster arboletatik ostruak jausten hasiko dira. Baiña, eguraldi txarrarekin be ondo pasatuko dozue Apatxirekin jolasian, ezta? Badakizue, ez zaittuet triste ikusi nahi eta!

**APATXI** honekin zuek primeran pasatzia espero dot. Eta gaiñera opari polittak lortu nahi badittuzue, lehiaketa orrixa gurasuekin batera bete eta gero ikastetxian bertan entregatu bihar dozue.



ZORTE ON!

## IGARKIZUNAK

Pipitaki-papataki,  
zer dan ezetz igarri!  
Norbaittek burua pizten badotsa,  
suzko malkuak mara-mara darixo.

Eguzkixa eta eurixa batera  
zazpi kolore kalera.  
Zer da?

Dauzkanak bistan dauzka,  
ikusten ez dittuanak biharko dittu.  
Zer diran badakizu?



## URREZKO ARAUAK

**K**iroletako emaitzak desberdin idatzi eta esaten dira euskeraz. Ahoz esaterakuan emaitzaren bi zenbakixen artian "eta" berbia esan biharko giñuke, eta sarri ahaztu egitten jaku. Halaxe esan biharko litzake:

- Realak *bi eta bat* irabazi zeban domekan Deportiboren kontra.
- Tau-Baskoniak *larogeita hamabost eta larogeita hamahiru* irabazi zeban Estudiantes-en kontra.
- Olaizola II.a finala *hamasei eta hamabi* irabazten doia Titin II.aren kontra.



- Realak *bi-bat* irabazi zeban domekan Deportivoren kontra.
- Tau-Baskoniak *larogeita hamabost larogeita hamahiru* irabazi zeban Estudiantes-en kontra.
- Olaizola II.a finala *hamasei hamabi* irabazten doia finala Titin II.aren kontra.



## TXALOKA

### JOLASTEKO KANTUA

**KUKUTUBIKU**  
Xe-xe-xe  
Ku-ku-tu-bi-ku  
Anianiku  
Zozuak umiak  
Sasian dittu  
Birigarruak  
Adarrian  
Kaka egin zeban  
Bizarrian.



## TXISTIAK EUSKARA IKASTEN

Euskarako irakasliak Txomini:

- Ia Txomin! Zela esaten da "puerta" euskaraz?
- Atea.
- Eta "puerto"?
- Ateo.

## JOXEMARI UDALETXIAN

Udaletxera paperen bat betetzera juan zanian zera esan zotsen Joxemariri:

- Emoidazu zure izen-abizenak.

Eta Joxemarik hasarre:

- Izen-abizenak zuri emon? Neu bape barik geratzeko gero?

## TELEFONOZ DIARKA

Telefonuak jotzen dau Bartoloren etxian eta:

- Jon Aranaren etxia da?
- Ez. Hau Arana-tar Jonen etxia da.
- Barkatu! Zenbakixa atzekoz aurrera markatuko neban orduan.

## KANTUA AMONA JOSEFIÑA

Seguruenetik askok eza-  
gutzen dozue kantu hau.  
Zela? Osorik ez dakizuela?  
Ba hemen daukazue oso-  
osorik. Kantatu! Kantatu!

Amona Josefiñak  
Lepuan lotu dittu  
Koillare, bolantiñak,  
Amona Josefiñak.

Amona Josefiñak  
Dendan erosi dittu  
Blusa sedazko fiñak  
Amona Josefiñak.




Amona Josefiñak  
Kutxatik hartu dittu  
Txirula, biboliña,  
Amona Josefiñak.  
Amona Josefiñak  
Dantzatuko dosku  
Fandango, arin-ariñak,  
Amona Josefiñak.

Amona Josefiñak  
Soiñian jantzi dittu  
Gona gorri, ariñak,  
Amona Josefiñak.

Amona Josefiña  
Illoba mukitsuandako  
Jostailu atsegiña

## OHARRA

Adin bakoitzari dagokixon ikurra:

-  Loria: 3-6 urteko umeentzat gomendatua
-  Baloia: 7-9 urteko umeentzat gomendatua
-  Kometia: 10-12 urteko umeentzat gomendatua

## KOMIKIXA

HASI DIRA ENTSAIUAK.  
BERGARAKO NESKA-MUTILLAK,  
ARANZADI IKASTOLAKO PATIXUAN  
DANBORRA JOTZEN DABITZ. ...



IRAILLAREN 16XA. SAN MARTIN  
EGUNA. DANBORRADIOA.




Egillia: Beñat Lizarralde  
Ikastetxia: Aranzadi  
Mailla: 5. mailla

# GALDEKETIA: ZELAKUA ZARA MAITTASUNIAN?

Zuk zer egingo ziñuke halako egoera batian? Markatu a, b edo c aukeria galdera bakoitzian. Galdera bakoitzari erantzun bakarra emon leikixo.

- 1 Neskaren edo mutilen bat asko gustatuko bali tzazu, zer egingo ziñuke?
  - a) Etxera gonbidatuko ziñuke bazkaltzera.
  - b) Lora edo piropo bat botako zontsake.
  - c) Begixarekin keiñu egingo zontsake.
- 2 Neska edo mutil eder batek zure baloia eskatu ko balotsu:
  - a) Duda barik lagako zontsake.
  - b) Ezetz esango ziñuke.
  - c) Gorri-gorri jarri eta ixil-ixillik geratuko ziñake.
- 3 Zuri gustatzen jatzun mutillari/neskari zinema gustatuko balitzako:
  - a) Filme bat ikustera gonbidatuko ziñuke.
  - b) Gustoko dozun pelikula bat gomendatuko zontsake.
  - c) Ez ziñuke ezebe esango.
- 4 Zure gelako norbait gustatuko balitzazu:
  - a) Eskolara bixok batera juateko proposatuko zontsake.
  - b) Gelan bere onduan jarriko ziñake.
  - c) Etxeko lanekin laguntzeko eskatuko zontsake.
- 5 Zure lagunak liburu bat leitzen ikusiko baziñuz:
  - a) Liburua ikusten lagatzeko eskatuko zontseke.
  - b) Liburua gustatzen jakuen galdetuko zontseke.
  - c) Ez ziñuke ezebe esango.
- 6 Zure irakasliaren urtebetetzia balitz bihar, zer egingo ziñuke?
  - a) Erregalo bat emongo zontsake.
  - b) Belarrittik tira egingo zontsake.
  - c) Asko jota, "urte askotarako" esango zontsake.
- 7 Nobixia/nobixua izango baziñu:
  - a) Patxo bat emongo zontsake.
  - b) Eskutik oratuko zontsake.
  - c) Zuk egindako marrazkia erakutsiko zontsake.



## GALDEKETIAREN ERANTZUNAK

Oin kontatu zenbat a erantzun, zenbat b erantzun eta zenbat c erantzun daukazun. Galdeketan gehixen irten jatzun letria hau bada:


- a) Zihero ausarta eta dezididua zara; gauzak asko pentsatu barik egitten dittuzu eta maittasuna emotia gustatzen jatzu. Oso komunikatibua, eta curiosidade haundiko pertsonia zara. Pertsona eskuzabala eta oso irekixa zara.
- b) Atrebentziarekin jokatzun dozu eta jendiarekin berba egittia gustatzen jatzu. Maittasuna emotia gustatzen jatzu, baiña trukian maittasuna jasotzia be bai. Pertsona detaillezalia eta zintzua zara.
- c) Maittakorra zara eta maittasuna emotia baiño gehixago, jasotzia gustatzen jatzu; mimuak jasotzia asko gustatzen jatzu. Batzuetan, gorri-gorri jartzen zara eta lotsatu egitten zara. Trankil egon zaitte eta natural jokatu, pentsatzen dozuna gehixagotan esango baziñu, lotsa gutxiago pasatuko ziñuke eta.

## LOGIKA JOKUA

**A**zken Tximiñuak saskibaloitaldiak aurten jokaturako 5 partiduetatik hiru partidu irabazi ditu, bat berdindu egin dau eta beste bat galdu. 5 aukerak zeintzuk diran begiratu eta ia asmatzen dozun: zeintzuk dira jokaturako partiduen emaitzak?

### EMAITZAK

Tatxenkoren Lagunak -Azken Tximiñuak	84 eta .....
Azken Tximiñuak – Txokolatetatxurro	..... eta 90
Beti Gazte- Azken Tximiñuak	86 eta .....
Azken Tximiñuak-Txantxangorrixak	..... eta 82
Betigu- Azken Tximiñuak	83 eta .....



## JOLAS GOMENDIXUA

### BADAKIT MAHAI JOKUA

Jokalarixak: 2-36. Banaka edo taldeka jokatu leike.



Egillia: Unai Garmendia  
San Martin ikastetxia

**M**ahai joku honetako galdera-erantzunen kartak zailtasunaren arabera bi multzotan banatuta daude. Karta urdiñetako galderak zailtasun txikiak edo ertainekiak dira, eta berdiak zailtasun ertain edo haundiek. Galderen aldamenian kolore bat agertzen da eta kolore bakoitza gai baten ingurukua da: berdia natura eta geografiari dagokixo, urdiña telebista eta ikuskizunei, morea ariketei, gorriak kirolei, laranja hizkuntza eta

literaturari eta horixa kulturari. Galdera bakoitzak hiru erantzun posible dauzka, baiña honetatik bakarra da zuzena.

Jokuaren helburua galderen erantzun zuzena zein dan asmatzen juatia eta sei fitxa desberdin lortzea da. Dadua mobitzeko momentuan jokalarixak erabakitzen dau noruntz jua, bere interesaren arabera: ezkerrean, esku-mara, gora edo behera.



## ERANTZUNAK

Irailleko Apatxiko erantzun zuzenak:

JOLASA. Lotu irudixak eta zenbakixak: a-3; b-4; c-1; d-7; e-6; f-5; g-2  
IPIUÑA: Ze animalixaren hankak dauzka ipuiñeko lamiñak? Aratarenak

## IRABAZLIAK

San Martin ikastetxeko Ion Orbeak eta Aranzadi ikastetxeko Asier Muñozek be sari bana jaso dabe. Zorionak hiruroi!



Iker Menor Madariaga  
Mariaren Lagundia  
3 urte